

TXIMINOEN IZARRA

UNITATE
DIDAKTIKOAREN
GIDOIA /

6-12 URTE



2022

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

**GIZA ESKUBIDEEN
ZINEMALDIA**

**FESTIVAL DE CINE
Y DERECHOS HUMANOS**

HUMAN RIGHTS
FILM FESTIVAL

DONOSTIAKO
GIZA ESKUBIDEEN
19. ZINEMALDIA.
2022

Donostiako Udaleko
Giza Eskubideen Saila
eta Donostia Kultura

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
GIZA ESKUBIDEEN
ZINEMALDIA
FESTIVAL DE CINE
Y DERECHOS HUMANOS
HUMAN RIGHTS
FILM FESTIVAL



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos




IKERTZE
www.ikertze.org

UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDOIA /

6-12 URTE

**Pelikula ikustera
joan aurretik
ikasleekin
egiteko lana**



- 1**
Fitxa teknikoa
- 2**
Sinopsia
- 3**
Unitate didaktiko
hau lantzeko
aholku
metodologikoak
- 4**
Filmaren kartela
abiapuntu,
elkarrizketarako gida
- 5**
Jarduera
proposamena
- 6**
Giza Eskubideak



**Pelikula
ikusi ondoren
ikasgelan
egiteko lana**

- 7**
Pelikula hitz batean
- 8**
Pertsonaien
deskribapena

- 9**
Gidoiari buruz hitz
egiteko galderak
- 10**
Ariketa





Pelikula ikustera
joan aurretik
ikasleekin
egiteko lana

1

Fitxa teknikoa

Izenburuak: **TXIMINOEN IZARRA (2021)**

Herrialdea: **Suedia / Noruega / Danimarka**

Zuzendaria

Linda Hambäck

Seulen jaio zen, Hego Korean, 1974.urtean eta Stockholmoko Arte Dramatikoko Akademian ikasi zuen. Jonna bezala, familia txiki batek adoptatu zuen Linda eta horregatik hazi eta hezi da Europako iparraldean. LEE Film produkzio-etxea sortu eta film labur txalotu ezberdinen ekoizpen-zuzendaria izan zen aldi batez. Orain, haurrentzako film luze animatuen zuzendaritzan dabil, Tximinoen izarra delarik bere azken lana.



Zuzendari bisuala

Elinor Bergman

Animazioa ikasi ostean, 2005ean hasi zen animatzaile profesional gisa lanean, eta orduz geroztik, 40 filme labur animatu ditu, esaterako, *Gordon & Paddy* (2017). Hainbat animazio-estilo eta -teknika menderatzeaz gain, pertsonai ezberdinei bizia emateko grinak ikasten jarraitzera bultzatzen du.

Istorioa eta gidoia

Frida Nilsson

Frida Nilsson Hadermon, Suedian, jaio zen 1979.urtean. Suediako irrati eta telebistako itzultzaile, aurkezle eta bikoiztailea izateaz gain, haurrentzako liburuen idazlea da. Frida landa-ingurunean hazi zen eta horrek eragin nabaria izan du bere lanetan. 2004.urtean eman zen ezagutzera bere haurtzaroa eta bazterketa oinarri gisa hartuta garatutako liburuekin. Ezagunenetako bat, *Piratas del mar helado* (2004) izeneko kontakizuna da.



Musika originala

Tania Naranjo / Minna Weurlander

Tania Naranjo Txileko hiriburuan, Santiagon, jaio eta hazi zen, txiki txikitan aurkitu zuelarik piano klasikoarekiko grina. Suediara lekualdatu eta 20 urte baino gehiagoko iblibidea du abeslari, konpositore zein kontzertista modura. Antzerki, dantza eta filme abarretako musika-konpositore gisa jardín duen arren, Tania, pelikulen musika egile bezala nabarmendu da, bere azken lana, *Tximinoen Izarra* filmerako musika sortzea izan delarik. Lan hau, Minna Weurlanderrekin elkarlanean gauzatu du.

Minna, Finlandian jaioa den arren, Suediara lekualdatu zen, non konpositore eta akordeonista gisa jarduten duen. Gaur egun, Europako akordeoi-jole onenetako bat kontsideratzen da eta bere ibilbidean zehar antzezlan, dantza zein opera askotako musika sortzaile gisa lan egin du. Taniarekin batera filme honetako musika sortzen aritu da.



2

Sinopsia

Jonna bitzta osoan zehar umezurztegi batean hazi den 8 urteko neskato bat da. Bertan bizi diren gainontzeko haurrak bere familia osatzen duten arren, betidanik izan duen nahi nagusia, ama bat izatea da. Udal agintarien presioaren ondorioz, haurren hezitzaileak familia adoptatzaileak bilatu beharko ditu etsi-etsian, ikastetxea itxi ez dezaten. Horretarako, ate irekien eguna antolatuko du hezitzaileak.

Ate irekien eguna iristean txikietako bat adoptatzeko prest agertu den norbait hurbildu da umezurztegira, baina denen harridurarako, hau gorila bat da! Honen aurrean, haur gehienak beldurtu egin dira, nahiago dutelarik umezurztegian gelditu. Ondorioz, Jonnak bere burua eskaini du adoptatutako lehen haurra izateko.



Hasieran egoera zaila egiten zaion arren, denborak aurrera egin heinean argi gelditzen da Gorilak eta Jonnak hasieran uste baino antzekotasun handiagoa dutela, eta Jonna, bere bitzta berrira ohitzen da.

Zoritxarrez, denbora bat igaro ondoren, tokiko agintariak Jonna eta Gorila banatzen saiatuko dira, neskatoa berriz umezurztegira itzuliko dela mehatxu eginez. Hori dela eta, borroka egin beharko dute benetako familia direla eta elkarrekin egon nahi dutela frogatzeko.



3

Unitate didaktikoa lantzeko aholku metodologikoak

Proposatzen dugun eredu metodologikoak gaitasun intelektuala eta kontzientzia soziala garatzea du xede nagusia, horretarako, ikasleek taldean elkarrekin hausnartu, pentsatu eta hitz egin beharko dutelarik beraien ondorioak formulatu eta osatzeko. Irakaslearen lana berriz, taldea bideratzea izango da, elkarriketa horiek gerta daitezen beharrezko baldintzak ahalbidetzea alegia.

Orrialde hauetan, hainbat baliabide eskaintzen ditugu ikasgelan elkarriketa parte-hartzailea eragiteko, eta zenbait galdera irakasleak elkarriketa sustatzeko eta gidatzeko balia ditzan. Esan beharrik ez dago, irakasle bakoitzak erabakiko duela horietako zein erabili, zein ez edota baten bat erantsi nahi ote duen. Jarduera errazteko galderen zerrenda bat proposatzen dizuegu, ikasgelan elkarriketa arakatzailea sustatzeko baliagarri gerta daitekeena.



 **Eskuragarri
hemen**

Etika bizirako prestakuntza bat gisa ulertuz, proposamen metodologiko honen oinarria elkarriketa da, honen bidez, martxan jartzen baitira garapen intelektualerako eta pertsonekiko errespeturako beharrezkoak diren prozedura eta jarrerak; horrek bizikidetzan on baterako trebakuntza eskaintzen du.

4

Filmaren kartela abiapuntu, elkarriketarako gida

“Tximinoen izarra” filma ikustera joango gara Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldira; Donostiako Udalak eta Donostia Kulturak antolatzen duten zinemaldi honen egitarauan, giza eskubideekin lotutako film labur eta luzeak proiektatzen dira.



1. Zer herrialdetakoa da filmaren zuzendaria? Non bizi da egun? Zein hizkuntza hitz egiten da Korean? Eta Suedian? Erraza al da filmaren titulu originala ahoskatzea?
2. Zer esan nahi digu izenburuak? Zergatik aukeratuko zuten izenburu hori?
3. Zer informazio eskaintzen digu filmaren kartelak (koloreak, hizkiak, formak, pertsonaien tamainak...) bertan gertatuko denari buruz? Hipotesiak egin ditzazkegu?



5

Jarduera proposamena

Gorila Charles Dickens idazlearen **Oliver Twist** liburuaren jarraitzaile sutsua da. Hau, oso eleberri zaharra da (ia 185 urte dauzka!) eta umezurztegi batean bizi den haur baten bizitza kontatzen du; Oliver, Londresera abiatzen da bizirauteko asmoz eta bere istorioaren bidez, garaiko klase banaketa eta gizartea kritikatzeko dituen (aberatsak eta pobreak). Horrez gain, desberdintasun soziala eta baztertuak diren taldeetako kideek dituzten muga eta zigorrak agerian uzten ditu eleberriak.

Liburuak izandako arrakasta zela eta, pelikula ezberdinak egin dira. Hona hemen trailera:

Oliver Twist Trailer (2005) - YouTube



1. Zer lotura dago Oliver Twist-en eta Jonnaren istorien artean? Eta zer ezberdintasun daude?
2. Zergatik uste duzu Gorila Oliver Twist-en nobelarekin identifikatzen dela?
3. Zure ustez, zer dela eta izan du hainbesteko arrakasta Oliver Twist-en nobelak?
4. Nor da eleberria zinemara egokitu duen gidoilaria?





6

Giza Eskubideak

Diskriminazioa, ulertzen ez dugun horri ateak irekitzeko edota ezagutzen ez dugunari aukera berri bat emateko daukagun beldurretik ihes egiteko aukerarik erosoena da.

Amnistia internazionala

Diskriminazioa norbaiten eskubideak kaltetzean datza, honen arraza, etnia, klase, sexu, genero, hizkuntza edota sinesmenagatik, eta ondorioz, desberdintasuna betikotzen duen tresna nagusienetako bat da.



Orduan zergatik diskriminatzen dugu?

Askotan ez gara kontziente edo besterik gabe, modu automatikoan jarduten dugu, ikasitako balio zein pentsatzeko modu eta ideiei jarraituz. Horregatik, funtsezkoa iruditzen zaigu txiki txikitatik **GIZA ESKUBIDE** kontzeptuaren inguruan aritzea, hauek lortzeko egin den eta egiten ari den lanari balioa emanez, Giza Eskubideak babesten dituen gizarte bat sustatzeko.

1989.urtean Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena sinatu zen, zeinak 54 artikulua dituen guztira. Dena den, funtsezko bost printzipio hauek dira aipagarrienak:

Unicefen Haurren Eskubideei
Buruzko Hitzarmena.
Testu osoa



1.

Diskriminaziorik ez:

haur guztiek eskubide berberak dituzte

2.

Haurren interes gorena:

umeei eragin diezaiekeen edozein erabaki, lege edo politikan kontuan hartu behar da haurrentzat zer den onena.

3.

Bizitzeko, jolasteko, bizirauteko eta

garapenerako eskubidea: haur guztiek dute bizitzeko eta garapen egoki bat izateko eskubidea

4.

Parte-hartzea:

seme-alabek eskubidea dute haiengan eragina duten egoerei buruz kontsultatuak izateko baita haien iritziak kontuan izateko ere.

5.

Etxebizitza duin bat izateko eskubidea:

haur guztiek beren garapenerako espazio egoki batean bizitzeko eskubidea.





Pelikula
ikusi ondoren
ikasgelan
egiteko lana

7

Pelikula hitz batean

Borobilean eseri, eta hitz bakarrarekin filma deskribatzeko eskatuko diegu ikasleei. Horretarako, hitzen zerrenda bat proposatzen dizuegu, hau lagungarria izango delakoan:

Tristura, beldurra, maitasuna, poza, kezka, zaintza, erabakiak hartzeko gaitasuna, adiskidetasuna, enpatia, ulermena, bakardadea, familia, taldeak, haserrea, beldurra, ausardia...

Filma ikusi ondoren, zuen ustez, zer esan nahi du izenburuak?
Zer sentimendu eragin dizu filmak?



8

Pertsonaien deskribapena

Borobilean eserita jarraituko dugu, eta arbelean ondorengo zutabeak dituen taula modukoa eginez, haurrekin pelikulako pertsonaia nagusien zerrenda osatu, eta hauek itxuraren (aurreiritzien) eta balioen arabera aztertuko ditugu.

Jonna

Gorila Ama

Aron

Tord (udaleko langilea)

**Gerd
(umezurztegiko arduraduna)**

**Giovanni
(umezurztegiko
mantentze-lanen arduraduna)**

**Gustaf
(liburu dendaren jabea)**

Mugikor eroslea

Bizikleta eroslea

Tabernako emakumea

Itxura

Balio
positiboak

Jarrera
negativoak

9

Gidoiari buruz, hitz egiteko galderak

Nola laburtuko zenioke
lagun bati filmean
gertatzen dena?

Beraz, zein da filmaren
gai ardatza?
Zer mezu igorri nahi digu?

Zein pasarte gustatu
zaizu gehien?
Eta gutxien?



ITXURA / AURREIRITZIAK

- Zergatik beldurtzen dira umezurztegiko haurrak Gorilarekin?
- Zergatik kritikatzten eta baztertzen dute Gorila umezurztegiko jabeek eta herritarrek?
- Aldiz, Jonnak ez du jarrera bera Gorilarekiko. Zergatik?
- Zer pentsatzen duzu norbait soilik bere itxuragatik eta hau ezagutu gabe kritikatu edo baztertzeaz?
- Ikusi al duzue inoiz horrelako egoerarik?
Zer egin dezakegu horrelako zerbait gertatzen denean?





DISKRIMINAZIOA

- Nola sentitu da Gorila soineko horia jantzi eta liburu dendara bidean zihoala, kafetegian eserita zeuden pertsonak barre egin diotenean?
- Esango zenuke Gorila baztertua sentitzen dela? Ideia hori berresten duen zer ikusi dezakegu pelikulan?
- Zergatik uste duzu Gorila Oliver Twist-en nobelarekin identifikatzen dela?
- Bizi al duzue horrelako bazterketa egoerarik inoiz? Zuen inguruan ikusi duzue edo gertatzen dela entzun duzue?

AMETSAK

- Zein zen Jonnaren ametsa?
- Zein zen Gorilaren ametsa?
- Lortzen al dute beraien ametsak betetzea?

FAMILIA

- Zein da filmaren hasieran Jonnaren familia?
- Nola sentitzen da Jonna ama berriarekin (seguru, zaindua, maitea, beldur, triste, haserre...)
- Zer pentsatzen duzu Gorilak Jonnari kontatzen dion izarraren historiaz? Zer esaten digu amaren sentimenduez?
- Zer osagai izan behar ditu norbaitek familiakotzat jo dezagun?
- Zer motatako familiak daude zure inguruan? Ereduek desberdinak ikusten edo ezagutzen ditugu? Adibidez?





GALERA

- Zer sentitzen du Jonnak Gorilarekin bizitzera joatean?
- Zer egiten du Tord-ek Gorila eta Jonna banatzeko?
- Zer lortu nahi du Tord-ek horrekin?
 - a) Bere izeneko ur parke bat eraikitzea
 - b) Hiritik gorila botatzea
 - c) Umezurztegiko haurrei instalazio hobeak eskaintzea
 - d) Gorilak adopzio baldintzak betetzen ez dituela ezagutzera ematea

ADISKIDETASUNA

- Nolako harremana dute umezurztegiko haurrek?
- Zure ustez, zer osagai izan behar ditu adiskidetasun-harreman batek?
- Laguntasunak zer sentimendu barnebiltzen ditu (zaintza, maitasuna, haserrea, beldurra...)?
- Zer ekartzen dio laguntasunak gure bizitzari?



10

Proposamena: eta gure inguruan zer?

Filmearen ildo nagusienetako bat den familiaren kontzeptuari helduz, ikasgelan bertan dauzkagun familien azterketa egingo dugu. Horretarako, bakoitzak bere familiaren argazki bat ekarri dezake, edota hau marraztu, ikasgelan dauzkagun familia eredu ezberdinekin murla egiteko. Ondoren aniztasunaren inguruko elkarrikeria bideratzea proposatzen da:

- Gelan ditugun familia eredu desberdinak ikusita, egon daitezkeen familia eredu guztiak daude irudikatuta gure murlan?
- Zeintzuk falta dira?
- Denak errepresentatzea posible da?

Behin hausnarketa egin da, ezagutzen ditugun eta gure murlan falta diren ereduak identifikatu, eta hauekin murla osatuko dugu (marrazki bizidunak, ipuinak, filmeak, ezagutzen dugun familiaren baten ereduak etab.).





DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

**GIZA ESKUBIDEEN
ZINEMALDIA
FESTIVAL DE CINE
Y DERECHOS HUMANOS**
HUMAN RIGHTS
FILM FESTIVAL